

Kale kantalian Ruben Sánchez euskaldunberri gasteiztarra
Sutondoan Ione Alberdi, Elkartzen taldeko kidea

bitpilan

SORALUZEKO
HAMABOSTEKARIA
130. alea, 2006ko
martxoaren 24an




45 urtez
misiolari
Ramon Bereicua Japonen



**MAKINA BEREZIAK
LERRO AUTOMATIKOAK
ESTANKOTASUNAREN KONTROLA**



SORALUZE MAKINA BEREZIAK S.L.L.
Mendiola industrialdea, 14-5 • Tel. 943 75 18 91 • SORALUZE



**Tornileria-estanzazioa
eta
extruzioa hotzean**



GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE



MARIA LUISA BLASCO

Udaberri baten atarian

201eko Udaberrian gertatu zen dena. Soraluze-Osintxu bitarteko ibilbidean. “Miraria” gertatu zen eta marrazkilaria bizitza luzeari literarioa gehitua nion, bere bi generoetan; “olerkia” eta “prosa”.

Eta nioen moduan, gaurkoan moduan orduko Udaberri hasieran ere, zefiroek akaziaren usai goxoa destilatzen zuten mendietan.

“Momentu horretan zerbait magikoa sartu zen nire kriptan”. “Goxoa zen zerbait sentitu nuen nire odolean Naturaren babesean, ateak zabaldu zizkidana ni bere bihotzean sar nendin, bere barruko lasaitasun, lilura eta edertasun guztia oparitzeko.

Bat batean, olerki moduko esaldi batzuk nire gogoan barneratu ziren, behin eta berriz emozio horiekin; baina ez neukan ez paper eta ez arkatzik eta gogoan hartu nituen gero etxean idazteko.

Horrela hasi zen, oraindik motza bezain emankorra den nire literatur ibilbidea. Herria inspirazio iturri agortu ezina dela ohartu nintzen, giza sentimenduak, “ederrak eta miserableak”, bere aniztasunean datozelako larru bizitan.

Ze...

Hain ederra eta freskoa den nire Euskal Herri maite honek, nire barrua lasaitzen du. Bere kolore berdeak indartu egiten dira euriak estaltzen dituen polena garbitzen dienean.

Soraluzen bizi naiz, iparraldeko herri industrial eta txiki batean. Baserriek maitasunez besarkatzen dituzten mendi aldapatsuz inguratuta.

Bere alde zahar txikia farolek argitzen dutenean, erromantiko eta piktorikoa bihurtzen da, bizitako bizitzaren gaineko hamaika irakurketa egiteko aukera emanez, itxura bakar eta bereziarekin.

Herriko Eliza egundokoa da eta lerdena. Eskuz landutako egurrezko elizpe ikusgarria du. Erregina baten moduan altxatzen da herriaren bihotzean, lurrari itsatsita dagoen bere dorre ederrarekin.

Harro doan eta atzean hainbeste edertasun uzten duen Deba ibai handia bere duela.

Herritarrak umilak eta hurbilak dira. Horrelakoa da nire herria, lasaia, sortzailea imajinatu eta amestera daramana, idaztera eta margotzera.

Bertan bizi naiz maite dudan pertsonarekin eta nire bizitza euren artean pasatu nahi nuke.

Telegrapak

Kaixo irakurle. **Stop.** ze gizalarru?. **Stop.** pentsatzekua da poztasun bat sentituko dozula. **Stop.** bai, Udaberrixa datorrelako. **Stop.** eta baita bakerako itxaropena loratzen hasi dalako. **Stop.** ETaren su etenak aukera asko zabaltzen ditu horretarako. **Stop.** espero deigun kartzeletako ziegetara be laster helduko dala loratze hori. **Stop.** badogu ordua arazo hau behin eta betiko konpontzeko. **Stop.** berbak errezaguak dira egintzak baino. **Stop.** baina berbiak be badauka bere indarra. **Stop.** eta berbiaren ordua heldu ei da. **Stop.** eta egingo dabe eta dogu berba. **Stop.** bakoitzak bere arazoi eta ametsekin. **Stop.** eta ikusiko dogu berbiak ze indar daukan gizarte honetan. **Stop.** beharbada haundixa eta biharbada txikixa. **Stop.** hori be aldatzen dan kontua izaten da. **Stop.** azken baten, garbi berba eginda. **Stop.** elkarri arrazoi pixkat emon benetako askatasuna eraikitzeko ordua heldu da. **Stop.** batzuek Euskal Herrixan eta beste batzuek Espainian. **Stop.** norbere gustora baina mugarik barik. **Stop.** demokrazia osuaren atzetik beti. **Stop.** eta bakoitzak bere burua gobernatzeko daukan eskubidia errespetatuz. **Stop.** baina horretarako ipurdixa mobidu biharko dogu danok. **Stop.** ia ba!



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkarte
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze
Telefonoa 943 75 13 04
comunidad: kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
E-mail: pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua:

Egoitz Unamuno
Erredaktoreak: Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan,
Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka
Salaberria eta Egoitz Unamuno

Publizitatea:

Ugaitz Catalan
Logotipoa: Jon Gabilondo
Banaketa: Pil-pilean Ekoizpena: 1.920 ale
Inprimategia: Gertu Koop.
Diseinua eta maketazioa: BOROBILE Zerbitzu Grafikoak
I.Z.K.-a: G20696563 Lege-gordailua: SS-537-2.000

Pil-Pilean Kultura Elkarreak ez du bere gain hartzen aldizkari esanen eta iritzi erantzunkizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



SORALUZEKO
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO
FORU ALDUNDIA



ERREPORTAIA

Ramon Bereicua misiolari maristak (Soraluze, 1931) 54 urte eman ditu Asian: 9 Sri Lantan eta 45 Japonen. Irakasle eta zuzendari izan da Kobe eta Kumamoto eskola maristetan, eta bertako administrazio kontseiluko kide izaten jarraitzen du. Bera da gaur egun-maristen ordezkari legala Japonen.

Zorion agurrak



Informazio gehiago
900 110 111 doako telefonoan
www.gipuzkoa.net/gazteria
Buletinen harpidetza !!!



Aitzol Placencia

Martxoaren 20an,
16 urte

Zorionak etxekuen partetik.



Erik Asensio

Martxoaren 11an,
7 urte

Zorionak! Muxu asko etxekuen partetik.



Maddi Plata

Martxoaren 29an,
2 urte

Zorionak sorgintxo! Jarraitxu beti bezain alai izaten. Muxu handi bat etxekuen partetik.



Iker Perez

Martxoaren 27an,
3 urte

Zorionak bihurri! Ez inoiz aldatu, gustatzen zaigu nolakoa zaren. Muxu handi bat etxekuen partetik.



Ixone Iñarra

Martxoaren 20an,
15 urte

Zorionak poxpolin! Etxekoen partetik.



June Hernandez

Apirilaren 4an,
urte 1

Zorionak prexioxa! Segi beti alai. Muxu handi bat etxekuen partetik!



Andrea Baldeón

Martxoaren 30ian,
3 urte

Zorionak! Urte askotarako eta muxu asko, etxekuen partetik.



Irene Etxezarreta

Martxoaren 25ian,
4 urte

Zorionak printzeza! Etxekuen eta Veronikan partetik.



Maria Etxezarreta

Apirilaren 4an,
urte 1

Zorionak sorgintxo! Etxekuen eta Veronikan partetik.



Ibai

Martxoaren 11an,
2 urte

Zorionak Ibai! Muxu handi bat, etxekoen partetik.



Jon Elizburu eta Bidatz Azpiazu

Martxoaren 25ian **ezkontzen** dira!

Zorionak bikote! la Guatemalatik umetxo bat ekartzen doazuen!

Gutunak

Alkatearen erantzuna PP eta PSE-EEko ordezkariari

Soledad del Bosque eta Francisco Javier Nuñez, PSE-EE eta PPko ordezkariak egindako akusazioen aurrean, zera argitu nahi nuke:

Aurrekontuak ez direla transparenteak diote, eta ez ditugula hauek egitean beste alderdiak kontutan hartu. Errealitatea oso bestelakoa da. Alderdi guztiek izan zuten 15 eguneko aurrekontuen zirriborroa euren eskutan, ogasun batzordean ekarpenak egin zituzten. Ez Francisco Javierrek eta ez Soledadek ez zuten batere ekarpenik egin. PPko ordezkariak duela 2 hilabete esan zidan aurrekontuak ez onartzeko alderdiko agindua zeukala. Gauza bera gertatzen al zaio Soledadi? Ba al daki Soledadek zer onartzen duen Udal Batzarretan? Honela dio eta hitzez-hitzez: "Aurreko urteetan bezala alderdi sozialistaren erabateko gaitzespena merezi izan dute". Soledad andrea, zuk onartu izan dituzu aurrekontuak zenbait aldiz, azkenkoa 2004. urtean. Esan behar dizuet baita ere aurrekontuak publikoak direla eta edozein interesatuen eskueran daudela. Beraz, zein argitasun faltaz akusatzen nauzue?

Udalkide biek egindako adierazpenen artean mingarriena gure adinekoen, zerbitzu sozialei eta Jubilau-etxeari buruzkoak izan dira. Guk beti izan dugu ardura berezia sektore hauekiko eta beti izan dute gure babesba bai aholkularitzari eta baita dirulaguntzei dagokiena. Horren erakusgarri udalak Itzaropena etxea erosi izana.

Tristeena da bi zinegotzi hauek izatea zerbait esateko daukatena, kontuan hartuta Francisco Javier (PP) denbora luzean ez dela Soraluzetik ageri, bere betebeharren utzikeria eginez. Ez da harriztekoa beraz herri honetako arazoekin ez enteratzea. Ba al daki Francisco Javierrek zaharren egoitza non den? Interesik erakutsi al du sekula bertan bizi direnengatik? Kategorikoki adieraz neza ez dela batere arduratzen herri honetako kontuekin eta bere interes pertsonalek bakarrik arduratzen dutela. Horren erakusgarri da bere presentzia eskasa eta aportazio eza Batzorde Informatiboetan.

Oskar Gabilondo, Soraluzeko Alkatea

Lana

Itzultzaile lanpostua

Elhuyar Fundazioa. Goi-mailako ikasketak. Hizkuntzak: gaztelania eta ingeleza. Interesatuak curriculum bidali beharko dute, posta arruntez edo posta elektronikoz. Lan-poltsa bat osatuko da. **Epea:** 2006-03-27.

Telefonoa: 943 36 30 40.

5 administrari laguntzaile

Andoingo Udala. Eskola ziurtagiria, Lehen mailako Lanbide Heziketa edo baliokidea. Idazkaritzarako Administrari Laguntzailea eta Pertsonaleko Administrari Laguntzailea 2. hizkuntz-eskakizunarekin; Obra Publiko eta Hirigintzako Administrari Laguntzailea, Gizarte Zerbitzuetako Administrari Laguntzailea eta Udaltzaingorako Administrari Laguntzailea 3. hizkuntz-eskakizunarekin. **Epea:** 2006-04-06.

Telefonoa: 943 30 08 30.

Astialediko Zuzendariak

Arrasateko Txatxilipurdi Elkarte. Lan poltsa osatzeko. Astialediko Zuzendari titulua behar da. Lanaldia maiatzetik uztaila bitartekoa izango da. Egin beharreko lanak; Begirale eta haur taldeen kudeaketa eta koordinazioa, udalekuen antolaketa, udalarekiko harremana, azpiegitura lanak, erosketen ardura,... **Epea:** 2006-04-30.

Telefonoa: 943 79 54 46 / 943 77 17 39.

Bekak

"Juan Zelaia Letamendi" musika beka

Eresbil. Euskal Fundazioa. Interesa duen edozein pertsona, bakarka edo taldean; aurkezleak betiere, erantzunkizun juridikorik hartu eta eskatzeko gai dena izan beharko du. Iraupena: Urtebete. Diru-laguntzak: 6.000,00 euro. **Epea:** 2006-03-30. **Telefonoa:** 943 00 08 68.

Jaiotakoak

MARIA GAMAZO DIEZ
MARKEL SORALUZE ORBEA

Hildakoak

ELENA LARRAÑAGA ASKASIBAR
ELOISA DURAN DIEZ

Zer irizten dotsazu?

Aurtengo futbol denboraldia aurrera doa eta dagoeneko 8 jardunaldi gelditzen dira amaitzeko. Euskal taldeak oso egoera ezberdinetan daude kokatuta sailkapenean; Errealak eta Alavesak bigarren mailara jeisteko arriskuan dira esaterako. Beti bezala zeresan asko ematen dihardute futbol kontuok.

Futbolari kasurik egiten dotsazu?



Beñat Ariznabarreta
16 urte, ikaslia

Bai, jarraitzen dot gustatzen jata ta. Athletixan partiduak ikusten ditudut, baita Reala-nak be batzutan. Ez jatan inondik inora gustauko euskal talderik mailaz bajatzia, baina egoeria ikusitta...



Marcelino Nuevas
76 urte, jubilatua

Zeze jarraitzen dot eta se-guru nago aurten ez dala euskal talderik bajauko, hala gustauko jatan behintzat. Nik uste dot, hala ta be, gaur egun inportantzia larregi emoten jakola futbolari; lehenago ez zan hola.




Janire Moreno
14 urte, ikaslia

Askorik ez, egixa esanda ez jatalako gustatzen. Talderen bat esatekotan Barça esango neuke, eta gainera hau ondo dabil aurten, beraz ez daukat zertan kezkatu.



Itziar Mujika
53 urte, etxekoandria

Oin hainbeste ez, telebisiñotik edo, zeze. Lehenago gehixago jarraitzen neban. Reala behintzat ez da bajauko, baina bestiak... Ez dakit ba, ez neuke nahiko, danak be euskaldunak dira eta.



Mikel Oregi
7 urte, ikaslia

Bai, asko gustatzen jatalako. Ni Realekua naiz, baina beste euskal taldiak ze egitten daben be inporta jata. Aurten bildurtuta nago Reala salbauko ete dan.



Marimar Deza
42 urte, harakina

Gutxi, baina zeze bai, batez be Reala. Ez dot uste aurten euskal talderik bajauko danik, azkenenguetan gogor jardungo dabe eta. Nik uste dot, futbolari dakana baino garrantzi gehixago emoten jakola, hala eta be gustatzen jata.

- Bizkarreko mina
- Esginzeak
- Tendinitisak
- Masajeak
- Erreuma
- Etxeetara fisioterapia
- Istripu ondorengo errehabilitazioa
- Kirol osteko errehabilitazioa



Unai Ormazabal Iraola
Kolegiatu Zenbakia 947

Altos Hornos Industrialdea • Telleria, 6 bis - Of.11 • BERGARA
Tel. 943 76 53 35 / 626 900 608 • ormazabalfisioterapia@yahoo.es

IÑAKI IÑARRA
HARATEGI ETA URDATEGIA

Kalebarren 29
Tfnoa 943 75 12 49
Soraluze



Hemezortzi etxebizitza berri Errekaldean



18 etxebizitza eta 24 garage berri egingo dituzte Errekaldeko farmaziaren eta Pascual Churruca enpresaren bitartean. 3, 5, 7 eta 9 zenbakidun etxeak joan zen astean hasi ziren botatzen; aurretik, 11, 13, 15, 17 eta 19 zenbakietako etxeak bota zituzten. Eraiste lanak bukatzen direnean etxebizitzaren proiektua udallexean aurkeztuko dute konstruktoreek, Rabal 17 eta Santa Ana 15 eko etxebizitzak egin dituzten berrek.

EHE-k Hizkuntz eskubideen egunerako autobusa jarri du

Soraluzeko Euskal Herrian Euskarazek autobusa jarriko du apirilaren 2an Santurtzin ospatuko den hizkuntz eskubideen egunera joan ahal izateko. Aurtengo edizioak "hizkuntz eskubideen defentsa guztion esku dago" izango du lelotzat. Euskararen geroa "denon esku" dagoela adierazi nahi izan dute Euskal Herrian Euskarazekoek, guztion eskubidea dela "Euskararen ofizialtasuna Euskal Herri osoan bermatzea, euskera ezagutzea eta euskeraz bizitzea". Apirilaren 2ra-

ko egitarau betea prestatu dute: 10.30etan DIANA

11.00etatik aurrera, egun osoz EUSKARAZ BIZI GUNEA

Umeen txokoa
Puzgarriak
Harri Zulatzaileak
Dantzariak...

11.00etan NAZIO BIKLKURA

13.00etan MANIFESTAZIOA

13.30etan EKITALDIA

14.30etan BAZKARIA

16.00etan UME JOLASAK

17.00etan ENE BADA dantzaldia

Semaforoak Santa Ana kalean

Astelenetik aurrera semaforoak izango ditugu Santa Ana kalean eta Olean, Santa Ana kaleko urbanizazio lanak direla eta trafikoz zentzu bikoitzak zirkulazioan ekar ditzakeen kalteak arintzeko. Hortaz gain, galerazita egongo da 21, 23 eta 25 zenbakien aurrean aparkatzea, eta baita kale horretako gainean, hau da, 30-38 zenbakien artean.

Eduki ontziak Santa Anatik Zubira.



Orain arte Santa Ana kalean izan diren paper, plastiko eta beira edukiontzia Gila zubian izango dira aurrerantzean. Mankomunitateko kamioiak sarbidea itxita dauka Zubi Nagusitik eta Oleako aldapatik sartu ezin denez Udalak edukiontzia Gila zubira eraman ditu

GILA TABERNA

Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik

Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!



| Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34



PASCUAL CHURRUCA, S.A.

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruca.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

PLACENCIA KONTSUMO KOOPERATIBA

Esku eskura! Telf: 943 75 13 45

Telefona 75 24 09

ARRANO tabernia

"Giro euskalduna eta sanua"

ETORRI ETA GOZATU



EUSKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

etxera

Debarrenako enpresetan euskara normalizatzeko plana



Debarrenako udalek, bailarako lan munduan euskararen erabilera sustatzeko plana jarri dute martxan. Planaren nondik norakoak aurkezteko prentsaurrekoa egin zuten martxoaren 22an Debegesako egoitzan. Bertan, Udaletako euskara

teknikariak, arduradun politikoak, Debegesako ordezkariak eta EMUN aholkularitza zerbitzuko teknikariak izan ziren.

2006rako ezarritako ekintzen artean: udal teknikari, sindikatu eta agintariei zuzendutako prestakuntza saioak eta bailarako hainbat enpresei euskara plana garatzeko egingo dizkieten eskaintzak dira aipagarrienak. Esaterako; Deban, Eibarren eta Elgoibarren hamarna enpresa bisitatuiko dituzte, eta Mendaron, Mutriku eta Sorluzen bosna.

Debagoienean bezala, Debarrenean ere euskara laneko hizkuntza jartzeko bidean jarri nahi da plan honenkin. Bailarako enpresari eta langileena izango da azken hitza.

PPko zinegotzi Nuñezek gezurtizat jo du alkatea



Francisco Javier Nuñez PPko zinegotziak prentsaurrekoa eman zuen joan den ostegunean, martxoak 23, 2006ko aurrekontuen onarpenaren

osteko eztabaida eta akusazioen ondoren Oskar Gabilondo alkateak beragatik esandakoei erantzuteko. Bere esanetan oposizioko alderdiek 5 egun izan zituzten aurrekontuak aztertze eta ez 15 alkateak adierazi bezala. Udalbatzarrean PPren 9 elegite bozkatu zirela gogorarazi nahi izan zion alkateari, eta "gezurra" dela beraz PPk aurrekontuei "ezer aportatu ez" izana.

Gaineratu zuen gezurra dela bera aspaldian ez dela sorluzera etorri, aktak begiratzea besterik ez dagoela, eta ezagutzen dituela herri honetako arazoak, erantsiz Erregetxeko aparkalekuen, ur transbasearen eta Babes Ofizialeko Etxebizitzen inguruko erantzunen zain dagoela oraindik.

Ur Transbasea Rekalde-Atxuri-Rabaletik egingo da

Urkulutik Eibarrerako ur transbasea Errekalde-Atxuri-Rabal-Balategieta-Sagar Erreka ibilbide jarraituko du. Beste 3 ibilbideak (bide berrik, Olea-Santa Ana-Zubi Nagusia, Balategietatik edo Bariantetik) baino aukera gehiago zeukan hasieratik ibilbide honek, eta horrela aditzera eman zuen diputatu nagusiak herrira egin zuen bisitan. Hala ere, Udaleko ordezkariak ez dute ibilbidearen konfirmazio ofizialik jaso. Diputaziotik baimena eskatu zuten joan zen astean Errekalde-Atxuri-Rabal-Balategieta kaleetan lurrazpiko katak egin ahal izateko. Bestalde, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean ere agertu da proiektuaren burutzea Mariezcurrena y Zubiebar enpresari esleitu diela diputazioak. Lanek 8.535.789 euroko aurrekontua izango dute.



Etxe bat okupatu dute hiru gaztek

Sorluzeko 3 gaztek etxebizitza bat okupatu dute Frontoiko maisuen etxean. Aipatutako etxebizitza Udalaren jabetzakoa da eta urteetan zegoen hutsik. Gazteek etxebizitza premia zeukatzen eta bertan jarri dira bizi izaten.

Javier Alonso Zelaia
K. Z. 20.000.434
Nora Bastida Etxeberria
K. Z. 20.000.736

HORTZ KLINIKA
Errabal 1 - Barrenekoa 2 • Tel. 943 75 16 13

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Halebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Balategieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



Nundik dakarzu marista bokazioa?

Eskolan, marista anaien magnetismuak harrapau ninduan, oin dala 60 urte. Harek ziran katekesiak, harek Mariaren hilabetiak! Zelako anaitasuna eta apaltasuna! Familixan apaiz bat baino gehixago euki arren, ez neban zalantzarik euki ni marista anaia izango nitzana.

Eta misiolari bokaziñua?

Ume nintzala sarri entzun nittuan gure auzokuak ziran Bolunburutarren misiñuetako kontuak; bost misionero zeren familixan, 3 jesuita eta bi religiosa, Txinan eta Japonen; juniortzan eta nobiziauuan beste anaia misiolari batzuen esperientziak ezagutziak be animau ninduen bokaziño berezi hau hartzera.

Zein izan zan zure lehenengo destinua?

Isla tropikal eder bat, Sri Lanka, 1951n. Aukera aparta izan zan neretzako aintzinako zibilizaziño brillante batekin eta beste erlijijiñuekin (budismua, hinduismua, islama eta San Francisco Javierrek eruandako

*Marista anaien
magnetismuak harrapau
ninduan*

54 urtez misiolari Asian


Ramon Bereicua misiolari maristak (Soraluze, 1931) 54 urte eman ditu Asian: 9 Sri Lankan eta 45 Japonen. Hizkuntza irakaslea eta zuzendaria izan da Kobe eta Kumamoto eskola maristetan, eta bertako administrazio kontseiluko kide izaten jarraitzen du. Bera da gaur egungo maristen ordezkari legala Japonen.

katolizismua) harreman personalak sakontzeko. 1959an gobernu batek eskola katolikuak nazionalizatzari ekin zotsan, eta pena haundiz islia lagatzera bihartu ninduen. Handik Japonera juan nitzan, beste misiño bat hastera.

Japongo ebangelizaziñua ez da lan erreza izango.

San Francisco Javierrek, apostoluz motza egin bazeban be, arrakasta haundixa lortu zeban Japonen, misiño loretsua sortuz. Gero, 250 urte iraun zeban pertsekuziñua etorri zan eta milaka japoniarrek

*1959an Japonera heldu
nitzanetik enamorauta nago
herrialde honekin*



bizitza emon zeben euren fediagaittik. Bigarren mundu gerra bukaeraren gerturatze bat egin zeben japoniarrek eliza katolikora baina mोगimentu harek ez zeban luze jo. Agnostizismua eta batez be sinkretismua goraldixan dare Japongo



Japonera joan aurretik ere, irakasle jardun zuen Sri Lankako isla tropikalean eta bertako paisaia zoragarriak ezagutu zituen

IKASKETAK

- Lehen ikasketak Plazentziako maristekin egin zituen.
- Juniortza eta nobiziatua Antzuolan.
- Eskolastikatua Grugliasco eta Bairon, Italian.
- Londresko Unibertsitatean letretan lizentziatu zen.
- Nueva Yorkeko unibertistatean Master's degree linguistikan.
- 7 hizkuntza hitzegiten ditu.




ebangelizaziñua lan nekesa da beraz. Dana dala azken urtietan bi-koiztu egin da komunitate katolikua Brasil, Peru eta Boliviatik etorritako etorkineri esker. Gainezka egin dogu danak hartu ezinda.

Zer dauka Japonek 45 urtian bertan bizi izateko?

1959an japonera heldu nitzanetik enamorauta nago herrialde honekin. Beti emoten dotsara eskerrak Jaunari hemengo lurretan misiolari izateko aukeratua izan nitzalako. Zelako kultura exotiko eta liluragarria, hain aberatsa gizabalore eta balore estetikoetan; hain desberdina gure kulturatik. Hartu nauen herri honekiko gerturatze intimo eta pertsonal hau ez litzake posible izango japoniar hizkuntza menderatuko izan ez banu. Inkulturazioaren bihar-biharrezko oinarria da hizkuntza.

Japoniarrera eta beste 6 hizkuntza ere hitzegiten dituzu.

Hizkuntzalaritza ikasketak dakara eta leku askotan ibili naizenez, toreatu bihar izan dittut, hurrenkera honetan: euskera, gaztelera, frantsesa, italiara, ingelera, ceingalesa



eta japoniera. Euskeria ulertu eta irakurtzeko ez daukat arazorik, baina ez egidazu eskatu diskurtso bat edo sermoi bat euskeraz esaterik. Bateronbategi idatziko balosta Plazentxiko azentu onakin irakorriko neuke. 1948xan Euskaditik urten nebanetik ez dot aukera asko euki euskeraz berba egiteko.

Japongo lurrikara famatua nola gogoratzen duzu?

Ez dot sekula ahaztuko 1995eko urtarrilaren 17 hartan zela jo zeban lurra gure hirixak. Koben 6000 hildako baino gehixago izan ziran. Gure eskolia eta anaien egoitza zihero hondatu ziran. Eliza katolikuan, lagun batzuen eta gobernu japoniarran laguntziari esker berre-raiki ahal izan doguz, baina prestamo bankario inportantiak dakaguz oindiok ordaintzeko.

Nola ikusten da japonetik Euskal Herriko egoera? Nola hartu duzu su etenarena?

Beti jarraitu izan dot interes handiz Euskal Herriko panorama soziopolitiko. Aldaketa nahiko kuantitatiboa izan da Japoniako publikuan artean Euskal Herria baloratzerako orduan. Aintzina plazer haundixa emoten zotan japoniarren aurrian nere burua euskaldun moduan agertzia. Gaur egun japoniar askok biolentotzat gaitue, eta baita terroristatzat be. ETAn sueten iraunkorran berrixa ilusiño eta poztasun haundiz hartu dot. Komunikabide guztiak, Japoniarrak eta atzerrikuak, zabalkunde haundixa emoten dihardue GERTAERA haundi honi.

ARMAGIN ETA TORERO ODOLEKO EUSKALDUNA

“Armagineen ondorengua izanda, polbora eta karga explosibo asko daroiat ADNan. Torero odola bebai: Pedrutxo Basauri eibarko torero famosua gure aman lehengusu karnala zan. Pedrutxon anai bat, Martintxo, Marsellako zezen plazan hil zan toreatzen ziharduala, oin dala 80 urte.”



Udaberriko kontzertua

Joan den asteazkenean udaberriko kontzertua eskeini zuten musika eskolako ikasle eta irakasleek Eliza nagusian, udaberriaren atarian urtero egiten duten legez. Era askotako musika jo zuten eta bertaratu ziren entzuleek txalo zaparradarekin agurtu zituzten. Argazkian Musika eskolako banda ageri da. Bikain interpretatu zuten Steve Hodgesen White River Overture pieza interpretatzen.



EZOZIKO AMA ABESBATZA LEITZAN izango da datorren domekan, apirilak 2; 11etako mezetan kantatu ostean abesbatzakoek kontzertu berri bat eskeiniko dute Nafarroako herrian. Argazkia: Juanma Berrueta.

Poxpolo eta Mokolo pailazoak Plaza Berrian



Martxoaren 31n, ostirala, Poxpolo eta Mokolo pailazoek euren ikuskizuna eskeiniko dute Plaza Barrian, arrtsaldeko 5etan, "Bai Eskolak Euskalduntzeari!" kanpainaren barruan. Guraso eta neska-mutikoak euskararen irakaskuntzaren aldarrikapenera biltzea da ekimen honen helburua.

DJ Papi Mendata tabernan

Martxoaren 25ean, zapatua, DJ Papi plazentziatarrek Mendata taberna musikaz alaituko du gaueko 12etatik aurrera.

argitek
ELETRIZITATEA

David Rascón
607 486 428

Instalazio eta
erreforma
elektrikoak etxebizitza
eta enpreseetan

Balategieta, 17 • 20590 SORALUZE

IRATXO GOXOTEGIA

EGUNKARIA
ETXERA ERAMATEN DIZUGU
GEHIAGO ORDAINDU GABE

ETXABURUETA, 4
20590 SORALUZE
tlf: 943 75 13 20

HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK

Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

MABE
ILEPAINDEGIA



**I ESTETIKA
I SOLARIUM**

Errabal kalea 1, behea
Tel.: 943 75 14 89
20590 SORALUZE

Ione Alberdi

ELKARTZEN-eko KIDEA

Ione Alberdi eta herriko beste zenbait gazte etxebizitza eskubidearen aldeko Kale-kantailan lan taldeko kide dira. Taldea Euskal herri mailan Eskubide sozialen aldeko Elkartzen talde bateratuan hasi da parte hartzen. Pasa den astea eskubide sozialen aldarrikapenen astea izan da, eta herrian zenbait ekintza burutu dituzte.

Zeintzuk zarete elkartzeneko partaide?

Eskubide sozial desberdinen alde herrixetan daren plataforma desberdinak. Hamen Kale-kantailan plataformia zeguan etxebizitzaren arazuan inguruan lanian eta Elkartzenen sartzia pentsatu genduan. Gutxi gare lantaldian baina espero dogu jente gehixago hurbiltzia.

Zeintzuk dira elkarteen helburuak?

Oinarrizko eskubideen betetzea eskatzea, eta guk etxebizitza eskubidean eta diru sarrera duinak izateko eskubidean egiten dogu indarra. Pobreziaren muga 800 euroko soldatan dago, etara kontuak. 50 milioiko etxia zela erosi leike soldata justu batekin? Dana lotuta doia, soldata duina eta etxebizitza.

Herriko etxe hutsten errolda egiten ari zarete. Zenbat aurkitu dituzue?

Ondioak ez dogu erreoldiakin amaittu baina momentuz 80 kontau doguz. Uste dogu Udaletxian lana dala etxe hutsten erroldia egin eta etxebizitzaren eskaera erreala estudiatzea, gero neurriak hartzeko. Badirudi arazua indibiduala dala baina ez, kolektibua da guztiz

Etxebizitzaren inguruko hitzaldia izan da astean. Zertzuk aipatu dira?

Etxebizitza eskubide bat izatetik negozio bat izatera pasatu dela. 2004. urtian merkatu librian etxebizitza baten prezio mediuia 256.000 eurokoa zan. Horri gehitu koste finantzieruak (100etik 170) eta etxe-



Ione Alberdi

Etxebizitza merkatuan logikatik etara bihar da

bizitza 436.000 eurotan (72kilo) geratzen da. Semiak bukatuko dabe ordaintzen etxia.

Zer egin daiteke etxebizitzaren arazoa konpontzeko?

Etxebizitza merkatuaren logikatik etara. Etxiak berak (ladrilluak eta hori, promotore eta lurzoruan kostorik barek) etxebizitzan prezian %20xa balio dau. Lurzorua publikuan eraikin sozialak egin leikez, errenta sozialdunak, espazio privativo eta publikuekin. Eta alokairu sozialak bultzatu. Soldatan

%15eko kostua eukiko leuke errentiak.

Eta okupazioaz zer iritzi duzue?

Hemen, Europan ez bezala, okupaziñua ikusten da zeozer marginala moduan. Etxebizitza daukagun eskubide bat da eta ez doskue emoten. Beste alternatiba bat moduan ikusi biahz litzake okupaziñua.

Saciako etxiak?

Hori be partxia jartzia da. Jente asko geratzen da kanpuan soldata minimira heltzen ez dalako. Osasungintzakin konparatuz: danok dakaugu eskubide bera medikora juteko. Dirua dakanak pribaura jungo da baina eskubidia badakagu danok. Eskubide hori kentzia moduan da.

GURE ZERBITZUAK

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

ELIZPE

Hortz Klinika



- ✓ DOANEKO BERRIKUSKETAK
- ✓ FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA
- ✓ KONPROMISURIK GABEKO AURREKONTUA

ETA ORAIN... LAGUN ARO, PADI (HAURREN ARRETARAKO HORTZ PROGRAMA)

Elizburu 3, behea • SORALUZE • Tel. 943 75 25 67



EDURTZA Kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze

Karta enkarguz, jaunartzeak eta bataioak



Euskal Olinpiadetan gogor plazentziatarrak

Joan den zapatuan Gazte Olinpiadak ospatu ziren Euskal Herriko eskualde guztietan. Soroluzeko gazte talde batek Eibarren jokaturakotan hartu zuen parte Deba, Elgoibar, Mendara eta Eibarko gazteekin batera, eta Donostian ospatuko den Herrialdeko Finalerako sailkatzea

lortu zuten. Bertan, Gipuzkoa osoko eskualdeetako ordezkariak izango dira eta bi taldek lortuko dute Etxarrin egingo den Gazte topagunean jokaturako den E.H.ko final nagusirako sailkatzea. Gazte Topagunea apirilaren 14tik 17ra bitartean ospatuko da Etxarrin.

EMAITZAK

ESKU PILOTA

ATXOTEGI	
<i>Sopelako 4terdikoan</i>	
Mendizabal	22
Atxotegi	11
<i>Udaberri txapelketan</i>	
Atxotegi-Portu	22
Andueza -Epelde	11
<i>Udaberri final laurdenetan</i>	
Atxotegi-Portu	22
(Altzoko bikotea)	5
<i>GRAVN txapelketan, Gipuzkoa ordezkatzeko</i>	
Atxotegi-Legarreta	22
(Arabako bikotea)	5
LASKURAIN	
Chaffee-Laskurain	22
Capellan-Nalda	6
Titin III- Laskurain	22
Capellan-Goñi III	21

FUTBOLA

Tolosa 7- Sora 0 (erreg.)
Lasalle 3-Sora 1 (jub.)
Sora 4-Mariño 2 (kad.)

AGENDA

PELOTA

Domekan Bergaran
Berasaluzeko IX-Nalda
Apezetxea-Laskurain

Domekan Beasainen, Udaberriko finalerdietan
Atxotegi-Portu (Murumendiko bikotea)

FUTBOLA

Zapata 25, Antzuolan, 16:30etan
Antzuola-Sora (erreg.)
Inter Aitzgorri-Sora (kad.)

MENDI IRTEERA

Martxoak 26, domekan
Malkorra (1.274 m.). Arantzazun



TXURI-URDINAK. Erreala sailkapeneko azken postuetatik gertu badabil ere, Soroluzeko Txuri-urdinek festa giroan eta umorez ospatu zuten elkartearen 3. Urteurrena. Argazkia: Juanma Berrueta.

ARMENDIA JATETXEA

Ezoz Auzoa, 11
20590 Soroluzeko
Tfnoa 943 75 10 02

Sukaldaritza tradizionala

SAN ANDRES
Iturgintza

Iturgintza, Gasa, eta Berogailuak Sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 beheak
Tfnoa 943 75 16 46

Ruben Sánchez Bakaikoa

Euskaldun berri baten komediak

Ruben Sánchez Gasteiztarrak bere euskalduntze prozesuan bizi izandako komediak monologo bidez kontatuko ditu datorren apirilaren 7an Mendatan, Bai Eskolak euskalduntzeari kanpainaren barruan. Euskaldunberri honek Amurrioko eta Laudioko bertsolari eskoletan irakaslea dihardu gaur egun

Zein eredutan egin zenituen ikasketak?

A ereduari. Dena gazteleraz ematen genuen eta euskera irakasgai moduan geneukan, astean 3 orduz. Gogoratzen dut euskera latina baino okerrago ematen zigutela

Noiz eta non ikasi zenuen bada, euskera?

16 urte nituenean barnetegietara joaten hasi nintzen, eta hantxe egin nuen oinarria. Gero, irakurtzeak eta euskarazko irrati-telebistak entzuteak asko lagundu zidan.

“kalean hitzegiten hasi nintzenean ekin nion euskera ikasteari”

Zer izan da gaitzena prozesu hortan?

Neri kostatu zitzaidan dexente irakurtzen gozatzea. Frustratu egiten nintzen hitz eta egitura batzuekin. Batzuen euskara ere...ez dakizu ez ulertzea zuregatik edo idazlearegatik den.

Zer eman dizu euskerak?

Munduko edozein hizkuntza eta kulturaz jabetzeak asko aberasten zaitu, unibertso berri oso bat eza-gutzeko aukera ematen dizu. Bertoko hizkuntza izanda askoz ere gehiago.

Ze aukera dago Gasteizen euskera erabiltzeko?

Ni giro euskaldunean mugitzen naiz eta gehiena euskeraz egiten dut.

BERTSO BEGIZ

Kontatuko dudana ez da ez txistea lehen erdaldun bezala nengoen tristea animatu zaitezte zahar ta gaztea benetan merezi du euskera ikastea!

RUBEN SANCHEZ

Doinua: Joxe Tejeria.



Argazkia: Uxue Montero. Iturria: XDZ.

Beste batzuek zailagoa izango da, noski: %80 a beharrean %30 a biziko dira euskeraz.

Bertsolari eta bertso eskolako irakasle ere bazara

Bertsolari naizenik ez naiz ausartzen esaten baina ibiltzen naiz bai mundu hortan. Euskaldunberri askorentzat bertsolaritza da amets bat. Lehenbizi ulertzea eta gero egunen baten koplak bat botatzia: mision cumplida.

Zertaz dihardu monologoak?

Nire euskalduntze prozesua ahal dan eta modu barregarrienean kontatzen dut, urte guzti hauetan gertatu zaiz-

kidan pasadizoak kontatuz.

Aurreratuko al diguzu pasadizo bat?

Behin barnetegikoak herri bateko jaietan genbiltzan tsosna inguruetan tragoak hartzen eta ni nintzen botea eramateko arduradun. Hurreratu nintzen barrara tragoa eskatzera, euskaldunberri guztiok egiten dugun bezala, esaldia ondo pentsatzen eta esan nion barrakoari: “Aizu, barkatu! Katxi bat garagardo jar diezadakezu, mesedez?” Barra atzekoak igarri egin zidan euskaldunberria nintzela!!

Bertso bat botako al diezu euskeraz ikasten ari direnei?



1996ko martxoaren 24an hil zen,
50 urte zituela

LUIS CASARES PARDO
ERREFUXIATUA

*Zu maitatzea erreza izan zen,
zu ahaztea ezinezkoa.
Gure ondotik joan zinen,
baina inoiz ez gure bihotzetik.*

ISABEL, JOSUNE eta KAIET





Ugaraxo

2006ko martxoa

Danok berdinak gara !!



1. LANA

Hilabete honetan 2.ziklokoek Debarrena eskualdera irteera bat egin genuen. Elgoibarren eta Mendaron besteak beste Kilimon eta San Lorenzo ibai adarrak ikusten egon ginen. Mutrikun, herriko pertsonai famatuena historia ezagutu genuen. Gero, Euskal Herri osoan arrainaren enkanterako dagoen egurrezko makina bakarria funtzionatzen ikusi genuen. Baina baina ... enkantea zer den ez dakizuela? Ba, arrantza-leak ekartzen duten arraina prezio hobereanean saltzeko erabiltzen den sistema. Gaur egun guzti hori informatizatuta dago, baina garai batetan salmenta aho bizian egiten zirenez, a zer nolako istiluak sortzen ziren.

2. LANA

Matematikak bizitza errealean praktikatzeke asmoz, 3.mailako ikasleok denda moduko bat antolatu dugu. Produktu bakoitzari bere prezioa jarri diogu eta gero erosle edo dendari moduan jokatzeko ibili gara. Kasu bakoitzean behar diren eragiketak egin ditugu, **ETA KALKULAGAILURIK GABE!** Ez dakizue zein ondo ibili garan, baina lastima bi egunetan bakarrik ibili garela.



DENBORAPASA

Hemen gurutzegrama bat 3.mailatik aurrera egiteko. Laguntzarik gabe egitea ez da erraza, baina proba ezazue **SINONIMOEN HIZTEGIA** eta entziklopedia erabiliz, baietz osatu!

EZKER-ESKUI: 1. Nafarroako iparraldean dagoen herria. 2. Ipar Euskal Herrian, eguzki. 3. Bizkaieraz, iratzea. Itsas arraina. 4. Lasaitu. Interjekzioa. 5. Bat erromatarrez. XI.hilabete. Lehen bokala. 6. Arsenikoaren ikurra. Senideak. 7. Egiptoko hiriburua. Ni filosofikoa. 8. Bizkaieraz, sobera. Sartu aditzaren oina (lehen letrak). 9. Pl., perretxiko mota.

GOITIK BEHERA: 1. Igarobideak. 2. Modua. Saldu aditzaren oina. 3. Dardara. Joan den urtea. 4. Ezinaren erdian. Indarrez jarri. 5. Lehen bokala. Donostiako pilotalekua. Alfabetoko azken hizkia. 6. Batuketaren emaitza. Atzizkia. 7. Sexu eme. Pluralean, zangoaren atala. 8. Nire. Frantziako hegazkinetan azaltzen den hitza. 9. Mendiko atea.

	1	2	3	4	5	6	7	8	9
1			I				A		
2									
3									
4	B			E		U		E	T
5									
6									
7				R			N	I	A
8									
9									



TXIKI - INKESTA

Ze arau bete behar dituzue eskolan?
Betetzen al dituzu?

MARKEL FERNANDEZ, 6 URTE

Andereñua gelatik kanpora juaten danian formal egon bihar gara. Ezin da korrika egin gelan eta jolasordutik gelara gatozenian ezin da jolasten jarraitu. Nik betetzen ditut arau guztiak, batzuk ez.



MIREN DOMINGUEZ, 6 URTE

Gela barruan zaratarik ez egitea ondokuak lanian dabiz eta. Jolasak lurrera ezin dira bota eta etxetik ezin da jolasak ekarri. Kumunian papela ezin da lurrera bota. Nik batzutan txilixuak bota eta berba egiten dot.



CARLOS DE COS, 7 URTE

Andereñua berbetan daganain gu ixilik egotia bestela inor ez da enteratzen. Mahaixa mobitzia hartuta, eta ez arrastaka eruatia, soinu asko egiten dau. Ez jotia, badakigu, baina alfer-alferrik, ez dogu betetze asko.



AITOR BARRUTIA, 6URTE

Korrika ez egitia pasillotik, ez ibiltzia animalixen bezela gelatik, alkarri ez jotea, Andereñua juten danian bateronbatekin berba egitera gu ixilik egotia. Lehen animalixen moduan ibiltzen nitzan baina oin ya ez.



MARIA OLABARRIA, 7 URTE

Ez korrika egitia pasilluan; andereño bat pasatzen da zuk ez dozu ikusten eta txoke. Andereñua berbetan daganian guk berari entzuztia. Batzutan andereñuak esaten dosku ixiltzeko eta gu ez gara ixiltzen.



MIRARI PEREZ, 6 URTE

Pasilluetan eta ikastolan ez korrika egitia, lanak egiten gabizenian ez jolastia, etxetik gatozenian goizian txammarria kendu, amantala ipiñi, eta gero ez hastia jolasten andereñiak ez badau esaten. Nik arau batzuk betertzen ditut.



Bertsua

Zergatik begiraten nauzu desberdin?
Ez naiz zutaz hainbeste bereizten :
Ezin dugu gauza berdinetara jolastu?
Ez ditugu gauza berdinak ikasten?
Agian zuk indar gehiago duzu ,
baina nik haurrak izan ditzaket.
Zuk bizarra izango duzu,
baina nik haurrentzat esnea.
Zu gizon,ni emakume.
Zuk ni behar.
Nik zu behar.
Utz ditzagun hitzak,
Bultza ditzagun ekintzak.
" Denok desberdin,denok berdin."
Bizi gaitezen errespetuz eta elkarrekin !!!





NESKA-MUTILOK BERDINTASUNAREN ALDE

5. mailakoek, tutoretza orduetan, Euskal Herriko hainbat ikastetxeekin batera, EMAKUNDEK antolatutako NAHIKO programa aurrera eramaten buru-belarri ari gara.

Honen helburua, bi ikasturtetan zehar, emakumeek jasatzen dituzten tratu txarren aurkako sentsibilizazioa eta prebentzioa landuko dugu, gizakion harremanak elkarren arteko errespetuan, maitasunean eta berdintasunean garatu daitezzen. Horrela, hobeto biziko gara, zoriontsuago gu eta gure albokoak.

Karta joku desberdinen bidez, gure arteko gogoetak eginez eta gurekin jolastera etorri ziren begirale jatorrekin eginiko ekintzetaz baliatuz, konturatu gara, ezagutzen ez ditugun pertsonei buruz aurreiritziak errezegi botatzen ditugula, pertsonari horrek ekartzen dion kaltean erreparatu gabe, eta gainera, hoiek ez dira errealitatearekin bat etortzen. Baita ere, konprobatu dugu, emakume eta gizonezkoek ez zaizkiela, inondik inora, ezaugarri berdinak ezartzen: ez zaigu okurrituko inoiz gizonezko bat mimoso, ahula edo etxeko zereginetan trebea denik esatea, baina emakumeei, etiketa hauek berehala ipintzen dizkiegu. Gizona, gizon "guztiok" bezala, indartsua, kirol zalea eta ausarta dela pentsatuko dugu, baina errealitatean, gizon eta emakume bakoitza berezia eta beste-engandik desberdina dela ikasi dugu. Bakoitza gu geu gara, gure gauza on eta hobetu beharrekoekin.

BAZTER DITZAGUN AURREIRITZIAK!!!!

**APUR DITZAGUN ETIKETAK, GEZURRAK BAITIRA,
MUGA ETA TRABAK JARTZEN DIZKIGUTE PERTSONOI, GAREN BEZALA
ETA IZAN NAHI DUGUN BEZALAKOAK IZATEKO!!!!**



EMUN

LANA EUSKALDUNTZEKO KOOPERATIBA

- Enpresa eta erakundeen premiei egokitutako euskara planen kudeaketa
- Itzulpenak
- Euskara formazioa

HIZKUNTZA AHOLKULARITZA ETA EUSKARAZKO ZERBITZUAK:



Uriburu, 9 behea 20500 ARRASATE 943 711 847
Martin Ugalde Kultur Parkea 20140 ANDOAIN 943 300 978

emun@emun.com
www.emun.com

KREA

Barruko Arkitektura eta Dekorazioa

AINHOA LETE IRASUEGI
Tel.: 635731268

UFALA



irish pub

Garargardoa
eta Kafea

**aukera
ugaria**

943 75 00 30

JABIER ALBERDI

HARATEGI
ARTISAU ERARA
ESPEZIALIZATUA

KALITATEKO EUSKO LABELA DUTEN
PRODUKTUETAN.



Errebal kalea 24
Tfnoa 943 75 19 32



Belarrak

**Loradenda
eta belardenda**

*Erosketak etxera
eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11



LIMPIEZAS TREJO S.L.

Garbiketa Industrialak

Errekalde, 30 behea

Telf.: 943 75 25 57

Fax: 943 75 25 56

20590 SORALUZE

Garbiketa orokorrak

Garbiketa industrialetan espezializatua

Bulego eta lantegien mantenimendua

Makina garbiketak

Garaje garbiketak

Obra amaierak

Marmol eta terrazozen distiratzea

Graffiti garbiketa

Lurzoru handien errazketa eta fregatuak

GOGORTUZ Fisioterapia Zentrua



Lepoko minak
Erreuma
Erreabilitazioa
Kirol osteko errekupeazioa
Tendinitisak
Zaintiratuak

Ordutegia:
(goizez) 07:45etik 12:30etara
(arratsaldez) 17:00etatik 21:00etara

Oier Oregi Unamuno
Santa Ana 7
Tel. 943750022

